



Biltzarra

Biltzarra



DOKUMENTAZIO  
ZENTROA  
TS 2025

# Gestio txostena

# Gestio txostena

**Gestio  
tostenà**

# 1. KONGRESUEN TARTEKO ZIKLOAREN EZAUGARRIAK

## 1.1. TESTUINGURU POLITIKO OROKORRA

Gestio Txosten honek astertzen duen zikloa, garrantzi handiko gertakari politiko eta sozioekonomikoek mar-  
katu dute: hortxe kokantzen du LABek bere eskuhartze soziopolitiko eta sindikala.

Maila politiko orokorrean eta, ondorioz, Hego Euskal Herria eta Estatu espagnolaren arteko gatazkan, lehenda-  
bizi PSOEn gaibehera eta desgastea nabarrendu behar dugu: ustelkeriazko jokabide ekonomiko eta poli-  
zialetan murgilduta baitzegoen, Estatuko sektore mediatikoen morroi eta bizikide izanez gero.

Egoera politiko gorabeheratzen honen ondorioz, "trantsizio demokratiko" izenekoaren bilakaeran sekulako  
eragiña izan du. Estatuko egiturek gerra zikinean, ustelkeriazko hamaika kasutan (Filesa, Rubio, Banesto e.a.),  
estalpe politikoen bilaketak balditzatutako EEEn integraztearen ordainak, errealitate plurinazionalaren esta-  
bilizadore gisa Autonomietako estatuaren porrotak eta beste askok "demokrazia espainola" ahul hori honda-  
tu egin dute eta bertan, alternantzia, berez, ez da soluziorik eta ez da izango.

PSOEn desgaste horren bilakaera inestabilitatea larritu egin du, eta, honekin batera, Hego Euskal Herriare-  
kiko istiluan desarrolatu zuen Itunen estrategia ere behera etorri da.

Estatuko inestabilitate politikoak ez du erreakzio positiborik eragin alderdi erregionalistetan (PNV, EA, CDN)  
eta hauek beren proiektu politikoaren agorpena etsipenez ikusi dute. Morrontzazko jarrera honen osagarri,  
zoritarrez, aktibaz eta pasibaz euskal independentismoaren kontra biurtu da, Hego Euskal Herriko panora-  
ma politikoa blokeatuz eta elkarlotze politiko, ekonomiko eta soziala txikituz.

Honela ba da PNVec, bertako aitzindari batzuk ados egon edo ez, Estatuaren jarreraren garante segitzen du, eta  
ertzantza gero eta partaide aktiboago bilakarazi du enfrontamentu zibilean, eskubide indibidual eta kolekti-  
boak urratsean.

## 1.2. Ezker abertzalea 92/96 zikloan

Ziklo hontan, Ezker Abertzale osoaren fase kritikoa gertatu da. 92ko okerreko strategiaren ondorioek deso-  
rientazio eta ahulezia politikoa ekarri zuten egitura organizatioboetan eta jarduera politiko/sozialean.  
92/94 urteetan LABek indartu zuen bere ekinbide sindikala, lotura eta legitimitate sozial aundiagoa ekarriko  
zuen lan-ildoari ekinez. Honela esker abertzalearen jarrera taktiko eta estrategikoen oinarriak nahi ziren

94ko Europako hauteskundeetan izaniko emaitzen ondorioz, hausnarketa kolektiboa egin behar izan zuen Es-  
ker Abertzaleak independentziaren aldeko proiektua ostera kokatuz eta murgilduta zegoen defentsazko dina-  
mika ahula gainditzeko.

Hausnaketaldi honek eraginak izan ditu alderdi organizatiiboan eta ekinbide politiko-sozialean. KASen sako-  
neko bilmoldaketak (bloke "aitzindaria" suntsituta) zuzeneko eragina izan du kokapen organizatiiboan. Hemen  
LAB partaide zen eta, horren bezte, egunduko eragina duen ekarpenzat agertu behar du ezker abertzalea-  
ren lan politiko-soziala suspertzeko.

Testuinguru honetan Esker Abertzaleak ostera kokatu ditu bere indar eta jarrerak, baina kontraezan eta zalantzez beteriko prozezu honetan zehar, emaitzak zortuko dira piskanaka aurrerantzean, hartu behar diren ekimen politiko zuzenekin osatzeko.

Hori bai, ekimen politiko eta garrantzizko aurrerakada sektorialak EAren jarduera politiko sozialean oraindik ikusten diren hutsune garrantzizkoen gidari bezala ikustea oker ikaragarrikoa litzateke

Prozezu honetan, kontentziozko politikoa gainditzeko klabeak emanez, ETAk 95 apirilean egindako proposamena nabarmendu behar dugu. KAS alternatibaren edukiak gaurkotzea -Alternatiba Demokratikoa- egondoko aportazioa izan da Hego Euskal Herrian prozezu demokratikoari hasiera emateko.

Proposamenaren izaera demokratiko ukaezinak Estatuaren eta PNVren eskema intoksikatzailak hautsi ditu, Ezker Abertzalearen jarrera politikoak jaskera politiko sendoa emanez.

### 1.3. Textuinguru ekonomiko sindikala

Lau urte honetako ezaugarriak izan dira Maastrichteko konbergentziaren eragin ekonomiko eta sozial laboralak eta Lan Merkatuaren bilmoldaketa martxan jartzea: Hego Euskal Herriaren ekonomia gizarte eta enplegu-egituran aldaketak eragin dituzte, marko estatutarioak alhalmenik ez duelako fenomeno horiek bideratzeko.

Honek, noski, Euskal Sindikalismoan bere biziko eragina izan du, sistemak ezarri dituen koordenada berrietara egokitzeko sailtazun latzak izan ditularik.

Desindustrializazioa zabaldu egin da eta (bai eta dato makro-ekonomikoen bilakaeran) langabezian eragin larriak izan ditu.

Industria siderurgikoaren adierazgarri nagusi zen Altos Hornosen suntsiketa izan da prozezu honen xegarria: bertan hautematen da Gazteiz eta Iruñeko Gobernuak morrontzazko politika daramatela.

Lau urte honetan egindako bi greba orokorrek (CCOO eta UGT sindikatuen superbizitzazko eite gisa planteatuta eta ez, PSOEren politika sozioekonomikoaren konfrontaziotaz) ez dute planteatutako neurriak baldintzapean jarri eta, era berean mugimendu abertzalearentzat ez dute jarrera mesedegarriagorik eragin.

Sindikalismo espanoilekiko hausturazko politika planteatu den arren, Hego Euskal Herriko egoera sozioekonomiko larriak ezin izan du lehentansuna beraganatu. Hau da, Euskal mugimendu sindikalak ezin izan du, langabezia, prekarietate eta bikuntazun sozialeko egoera lehentasunezko arazo politikotzat kokatu, arduradun politiko eta instituzionalak seinalatuz.

LAB-ELAren arteko ekinbide sindikaleko batasunak euskal panorama sindikalen eragiten dituen aldaketak dira lau urte honetako zedarririk inportantena eta, honela, LABek III. Kongresuan defendatu eta aldarrikatzen zituen tesiak finkatu egin dira.

92an eman ziren urratsak Euskadin berarizko grebara LAB, ELA eta CCOOek deituta (CCOOek Baskongadetan bakarrik konbokatu zuen. Gerora, 93ko udaberrian berrindustrializazioaren aldeko kanpaina erekin jarraitu zuten iru sindikatuek eta une horretantxe CCOO "deskolgotu egin zen".

Sindikalismo abertzaleen batasunari esker, marko espainolaren alde egin zuten apostu estrategikoak erabat baldintzapean zeuden CCOO eta UGTrekiko haustura nabarmenduz etorri da.

Fase honetan sindikalismo abertzaleak Euskal Nazioaren eraikuntzarako elkarlaguntza politiko eta sindikalarako oinarriak ipini ditu. Aurrerakuntza estrategiko honetan iraun beharko da, gure iritiz.

## 2. LABen eskuhartze eta bilakaeraren balantzea.

### 2.1. Eragin Soziala.

#### 2.1.1. Hausnarketa orokorra.

Sindikatuaren eragin soziala hainbat maila eta espaziotan kokatu behar den arren, lau urte honetan egundoko aurrera pausoa emanda LABek Euskal gizartean daukan eragin sozio-politiko eta sindikalari dagokionez. Textuinguru politiko eta ekonomiko sail honetan (Itunek esker abertzalearen isolamendua eragin dutelarik) LABek eskenatoki politiko eta sindikalean nortasun eta eragin handiaz jantzi du bere burua.

Bi ardatzen gainean joan da bilakaera hau:

Lehenik, lantokietako ekinbide sindikal eta lan ildoari eustea, ordezkatu nahi dugun gizartearengandik gertuago egon gaitezen.

Hau da, Langile mugimenduan egiazko tresnatzat jokatzeko sindikalismoak jasatzen dituen sailtazun larriak gorra-behera, LABek badaki, jakin, lantoki eta herrietako eguneroko lanak bere biziko garrantzia daukala gure jarrerak eta eragina zabaltzeko. Sindikatuaren eskuhartzea "alturetari" eraman nahi izatea gure suizidio estrategikoa litzateke.

Bigarrenkoz, Euskal mugimendu abertzalearentzat erabat negatiboa zen inertzian amilduta zeuden ekinbide soziopolitiko eta sindikala aldatzeko organizazio osoak erakutzi duen asmo sendoa.

III. Kongresuan egin genuen apustuan (Lan Harremanetarako Euskal Markoa eta Gune Sozio-ekonomikoari lehentasuna emateko, alegia) gure sindikatuak bete-betean asmatu du eta aurrerapausu koalitatiboak lortu ditugu: honen ondorioz jasanarazi nahi ziguten marko politiko eta sozio-laboral espainol itogarriaren aulezia ideologikoa irabazi dugu.

Pixkanaka gainditu dugun ekinbide sindikal honek egundoko garrantzia izan du 95ko Aberri Eguneako ELA-LABek batera egindako dokumentuaren tankerako pausok emateko.

Hemendik abiatuta, epe honetarako LABek markatu zituen ideia eta elburuak bultzatzeko balio duten faktoreak desarroilatu behar ditugu, hauen bilakaerak erakutzeko baitu gizartean gure sindikatuak daukan eraginaren aurrerakuntza.

#### **a) LHEG eta EGSEk lehentasuna hartzen dute, azterketa eta ekinbide sindikalari dagokionez.**

LHEG eta EGSEri buruz III. Kongresuan egindako Hausnarketa zabal eta zakonek jauzi koalitatibo haundia ezagutu dute bi urte honetan.

Eraikuntza Nazionalerako sindikalgintza abertzalearen ekintza eta aportazioaren faktore determinatzaile bezala bere garrantzia azpimarratuaz, LHEM eta EGSEri buruz III Kongresuan aurkezturiko hausnarketa zabalak azken bi urteetan jauzi kualitatibo handi bat ezagutu dute.

Euskal gehiengo sindikalak argi dio: LHEM bat gauzatzeko gaurko marko juridiko-politikoaren eskastasuna, dauzkagun arazo ekonomiko eta sozialei aurre egiteko, euskal langileriaren eskaerak defendatzeko eta biltzeko tresnen beharra... argi azaltzen ditu Hezkuntza Iraunkorraren gaiari LAB eta ELAren erantzunean plazaratutako azken agiriak.

Sindikalismo abertzalearen eskuhartzean bi-hiru urte arte konzeptu honek zuen esanahi ilun eta zabalera eskasetik, gure ekimen sindikal guztiaren oinarrian jartzera pasa gara. 1994ko otsailaren 19ko agiri eta mobilizazio bateratua gertaera historiko inflexio gunea izan zen.

Estatutu markoari buruz eta azterketa sakonaren aldaketa eta Eraikuntza Nazionalaren estrategian bere lotura aktiboaren ondorioz, ELAren aportazioa espretxatu gabe, bere ekimen sindikalean sindikalismo abertzalearen jauzi kualitatiboari begira, benetako islada estrategikozko bideak irekitzeko helburuz, LABek eraman duen aitsindaritza ukaezinekoa dela uste dugu.

Honela bada, estatutu denborako azken 13 urteetan baino gehiago aurreratu da Kongresuarte honetan. Gutxienez, bere mugak jarri ditu sindikalismoa abertzaleak eta eraso eta aitzindari sozialentzako, oinarri kualitatibo berriak sortzen ari da.

b) Sindikalismoa espainolaren strategiaren aurrean sindikalismoa abertzalearen ekimena.

Sindikalismo espainolaren erantzuteko ahulezia, ekimen sindikalaren menpeko estrategian sartuta (Maastricht eta Lan Merkatuko Erreformarekiko jarrera), eta Lan Harremanetarako Marko Espainola arras defendatuz, LABen ekimen sindikalaren ildoak eta ELAren azterketa eta jardueraren aldaketak zeharo mugatua izan da.

Deialdi estatala alde batera utzi eta, ELA-LAB-CCOOek hausnarketa bereziekin gure deialdia egin genuenean, Konbergentzia planaren aurka 92ko Maiatzeko Greba Orokorrean, izan zen gure lehen "ordagoa"; gero sindikatu horiek 93 Udaberrian Berrindustrializazioaren alde egindako kanpainan izan zuen jarripena.

Euskal esparru sindikalaren (CCOO-UGT-ELA) esaugarri zuen ardatz antzu eta betikoaren lehen haustura honek, UGT baztertuta eta LAB nortasun propioz sartuta, euskal langileriaren egoera ekonomiko eta soziolaboralaren azterketan ELArekin oinarri amankomunak ezartzeko baldintza obeak gehiago sortu zituen.

Sindikalismoaren abertzalearen superbibentziarako oinarritzko tresna den aldetik, Euskal Nazioaren ereikuntzarako ezin bezteko neurri ekonomiko eta sozialtzat, LHEGen edukinetan sakondu beharra, era berean, sindikalismorako euskal langileen interes eta erreibindikapenen defentsan faktore eragilea delako.

Prozesu honen bilakaerak, eta euskal nazio errealitatea onartzeko eta bere sukurtsalismo ideologikoa eta Espainiako CCOOkin eskuhartzea zalantzan jartzeko CCOOen gaiezak, LAB-ELAren ardatza sendotzen joan da eta Euskadiko CCOOen "ugetetzea" gehitzen joan da.

Bere egoera sindikala artifizialki birbaliozko, euskal langileen erabakiak mugatzen dituen joku arauri, espainol markoari eusten dioten minorian geldituaz, sindikalismo abertzalearen joera sendotu egin dute hauteskunde emaitzak.

Azkenean, Euskadiko CCOO eta UGTek defendatu eta bultzatzen duten nazionalismo-espainol jasangaitz, itotzaille eta antidemokratikoa, "eusten dien" marko instituzionalaren ahuldutako eta menpeko proiektu sindikal batzuentzako salbaidas bezala kokatzen da.

Horrela bada, sindikal gunean lurrikara garrantzizko bat izan da. Sindikalismo abertzaleak, gehiengo handi baten laguntzaz, ekinbidea hartu du eta sindikalismo estatalaren strategiaren eraskinak izatearen bolar da luzea izatea utzi du (eskuhartze eta azterketa desberdinekin noski).

"Transizio demokratikoa" deituriko hasera ezkerotik lehen aldiz, "batasun sindikalaren" konzeptoak abagune eskemak austen ditu. Eta bere eredu sindikala ezartzen jarraitzeko CCOO-UGTek eduki duten manikeismo "bateratzailea" hausten duten sindikal eta soziopolitiko sakoneko edukinetan finkatzen da. Honen aurrean, berez baztertzen den jarrera jasangaitz eta "guda zikinez" erantzun du espainol sindikalismoak.

Honela bada, 80ko hamarkadako antzutasunakin etenaz, Euskal Langile Mugimenduan LABek defendatzen dituen jarrerak zabaltzeko balio izan du pauso garrantzizko honek.

c) LAB-ELAren politika mailako aportazioa gizarte usteak zabaltzen dituen erreferente berri bat biurtzen da eta Gasteiz eta Iruineako Hitzarmen eta Estatuaren estrategia mugiezina zalantzan jartzen du.

Euskadi-Estatu Espainolaren gatazkan garrantzi politiko ikuspegieri buruzko analisi bateratu bat finkatzen joan da ekimen sindikalaren batasuna. 95ko Aberri Eguneako agiriaren edukinak kolpe handi bat eman zuen eta

eta Estatuaren errepresio eta ja'raia politika eta, noski, PNV eta EAren jarrera laguntzailea zalantzan jartzen dituen gune bezala jarraitzen du.

95ko Aberri Eguneako agiriaren oinarriak funtsean, gatazka politikoaren sustraia LAB-ELAk mugatzeak, gure eskubide demokratikoen eskakizunak eta Negoziazio Politiko prozesu bat hastearen beharrak, Gasteiz eta Iruineako Itunen ereduak apurtzen ditu, nazionalismo-erregionalistaren jarrera politikoa zalantzan jartzen du eta ezartzen zaigun proiektu espainolizantearen aurkako abertzalearen ekimenean haize fresko eta itxaropentsu batek jotzen du.

Honela beraz, gure eskubide demokratikoen aldarrikatzearekin eta Nazio Eraikuntzarako estrategia baterako ekonomi eta sozial neurrian, 95ko Aberri Eguneako agiria euskal gizarte guztiarentzako onura eta gestioa positiboki eragin behar dion aportazio historiko bat da.

Kontextu politikoan LAB-ELAren sartzeko hau gizartean mugikor ez diren estrategiak zalantzan jartzea eta Estatu Espainolarekin Hego Euskal Herriak duen gatazka politikoari irtenbide negoziatua bere benetako osotasunean aurre egiteko beharrak gune zabalago gehiago irabazteko bidea ematen du.

95ko Aberri Eguneako ekimenaren hartzailea euskal gizarte guztia izan, "bidai lagun" eta Hego Euskal Herriarekiko Estatu Espainolaren strategiaren gestore izaten gelditua dagoen PNV batean eragin nahi du honek.

Gatazka politikoa eta bere irtenbideei argi eta garbi erantzuten dien dianogsi eta erreibindikazioak egin daitezke egiaztatzea, ELA eta LABen adierazpenak, Hegoaldeko euskaldunekin proiektu espainolaren eranskin erregional bat, errepresio eta inposaketa bidez, egin nahi duen estrategia politiko batean, abagune eta epe motzeko interesez mugatuariko "abertzale hizkerarekin" kokatuak dauden PNVren sektoreen jarrerak agerian jartzen ditu.

"Ollora" bide izenez ezagutzen diren zenbait adierazpenak, atxikimendu politikoz kokatu eta herri honeri egitazko itxaropen eman diezaioten bada ordua. LAB eta ELAk bide hortatik paregabeko bidea ireki dute. PNVek, ordea, makila eta eztiarekin jarraitzen du eta, honek gatazka eta bere ondorioak hareagotu bakarrik egingo ditu.

Bere jarreraren eta eskuhartzearen gaitasun eta heldutasun bat agertuaz, erabat aldeko ondorio soziopolitikoak izan ditu ikuspegi honetan ere LABen egintzak, beraz.

Atal hau laburbilduaz, gure ideia eta jarreraren gizarte eragina zabaltzeko LABen helburua bete dela ukaezina dela azpimarratu behar da. Gure protagonismo eta ezaugarritasuna gehitzearen ondorioz, egin eta esaten dugunarekin erantzunkizun maila handiagoak, hartu ditu Sindikatoak euskal gizartean.

### **2.1.2.-Ekintza sindikala eta ekonomiko eta gizarte ingurua.**

Ekonomiko eta gizartelan inguruari erantzun soziala zabaltzeko Sindikatoak agertzen jarraitzen dituen hutsune eta gabeziak ezin ditu saihestu balantze positibo orokorrak.

%25ko desenplegua, %90 baino gehiagoko prekaritatea, gazteriaren erdia baino gehiago lan merkatutik kanpo, gure Industriaren kolpatzearen jarraipena ( Burnigintza, Ontzigintza), langile emakumeak jasaten duen maila desberdinetako diskriminaketa, lan merkatuan BLEen eragin handiagoa, politiko sozioekonomiko faktore askoren ondorioaren gizarte bikoiztasuna, Negoziazio Kolektiboaren ahulezia, lan errententzako politika fiskal arrunt astunaren markoan iruzur fiskal handiak, inbertsio produktiboa saihesten duten banku eta enpresako etekinak... ekintza sindikal agresiboa eta, egunetik egunera, gizarte eraginaren garapenerako teorikoki aukera objetiboz betetako ingurua.

Hala ere, LAB eta sindikalgintza guztiak benetan kezagarria den ekintza sindikalaren ahulezia bat erakusten jarraitzen dugu. Kondizio objetiboen arteko elkar loturarik ez dago, alegia, langileria zigortzen de desberdintasun eta explotazioaren errealitatea eta erantzun mailak.

Aurkezten dugun egoera hau ez da berria. Aspaldidanik ezaugarritua baldin badu ere LABek, Lan Merkatua-  
ren Erreformaren ondorioz, eskuhartze eta organizatiboen ezinbesteko egokierak garatu gabe, sindikalgint-  
zaren jarrera defentsiboa gehitu egin da.

LABen kanpaina edo egintzak ekintza sindikal iraunkor bat ezartzea ez dute utzi. enpresetan eta gi-  
zartean eguneroko ekintza sindikalean jauzi kualitatibo bat emateko eta desenplegu, prekaritate, gizarte bi-  
koiztasun eta langileek nozitzen duten beste sozioekonomiko aldagaiari eragimenez erantzuteko, erakunde  
guztia ez dago behar bezala egokitua.

%50ko desenpleguarekin eta prekaritate anker bat jasanez enpleguan, lan merkatuan eta gizartean oroar  
emakumearen diskriminazioa, desenplegua nozitzen duten pobrezia eta miseriara zigortutako milaka sen-  
dien egoera larriak, sistemaren estrategia zalantzan jarriko duten eta langileriaren sektore kaltetuenen aurre-  
an ezaugarritasun eta legitimitate gehiagorekin jarriko gaituen, enplegu eta ondasunen banaketaren neurrien  
alde eragiteko Sindikatoak ez du izan egokitasun bete betekorik.

Negoiazio Kolektiboa ahulduaz eta lan harremanetan enpresarioen ekimen eta eragitearen indarra handituz,  
enpresetan eta lantokietan ekintza sindikala erabat defentsiboa izan da.

"Honela ezin da", "gizarte alarma"...buruz egindako ekimen sindikalak, pentsaera aldaketetan eta langileeki-  
ko gure jarrera eta konpromezuekin loturiko ekintza sindikal bati aurre egiteko eran pauso garrantzizkoa izan  
da.

Baina, berriro diogu, kanpaina jarduera baztertu egin behar da eta oinarri sendo eta iraunkorreko ekintza sin-  
dikal bat finkatu behar da. Harrotutako enpresario klase eta gelditu gabe, gizarte desberdintasunak areagot-  
zen ari den sistema baten aurrean eskuhartzearen ezten bat lortzea beharrezkoa dugu.

IIIen Kongresuan dianogsi hau (lanerako gune berriak, erabateko eskuhartzea, ekintza sindikala piztea) zuzen  
egina zegoela egia da. Baina, egin den bidea ez dela nahikoa egia da baita ere, eta alderantziz, sistimak sindi-  
kalgintzaren "joko lekua" aldatu duen abailarena oso handia izan da.

Nahiz eta eskasia honetan eragina duten faktoreak badauden (gizarte guztiaren beheraldia, poLitiko kontex-  
tua, sindikalgintzaren sinesgarritasunik eza), etsipen arriskutsu eta desmotibatu mailatan eroriaz noiz behin-  
ka, azken lau urte hauetan garatu dugun ekintza sindikalaren mailarekin ezin da konformatu LAB.

Beraz, ondorioz, langileriaren sektore zigortuenean batez ere (Emakumeak, langabetuak, gazteak...) LABen  
ezaugarritasuna gehitzeko, eskuhartze sindikalerako baldintza objetiboeri, Sindikatoaren militantzia guztiak,  
eta idazkaritza Nazionala erantzunkizun horren nahi eta ezeko zati bezala, ez diela behar bezala erantzun uste  
dugu.

Euskal Herriko enpresa eta herrietako sozioekonomiko egoera larriari erantzuteko eta batez ere, kaltetuenen  
defentsan, ekintza sindikalaren berpiztea behar du izan Kongresu honetako gakoetako bat.

## 2.2.- ERAKUNDEAREN HEDAPENA

### 2.2.1.- Garapen organizatiboa.

LABen bilakaera organizatiboak ez du izan nahi bezalako hedapenik. Borondate handiz eta eragin gutxiko ze-  
haztasunez, III Kongresu aurreko prozesuan, antolamentu ponentziak izan zuen sakontze desegokiak militan-  
teen aportazioak garepen organizatiboan biltzen ez zuen utzi.

Aurrerakada garrantzizkoekin eta kezka garritzko geldialdi egoerak, aro honen ebaluaketa zehatz bat egiten  
arrunt zaila izanaz, desorekak, ezaugarritu du garapen honek.

Herrietako erakundearen hedapena, egitura dinamiko eta eragile bat finkatuaz joan behar duten baseen aurrerakada baten ezaugarri dire gure ekintza sindikal eta soziopolitikoak antolatzeneko 50 egoitza. Alegia, Azpeitia, Anndoain, Orereta, Elorrio, Laudio eta Donostian egoitz berriak irekitzeko atarian gaudela, bilakaera positibo bat ezagutu du antolamendu aurrerapenerako infrastrukturek. Hegoaldean ematen den, partidu eta sindikatu "demokratikoen" politiko diskriminazio arbitrarioagatik, ondasun sindikalaren (ekintza sindikalerako infrastrukturek) banaketaren egoera aztertzen badugu, oraindik laudagarriago da ahalegin hau.

| <b>Hego Euskadi</b> | <b>metros cuadrados</b> |
|---------------------|-------------------------|
| ELA                 | 6.539 m                 |
| CCOO                | 6.152 m                 |
| UGT                 | 8.290 m                 |
| LAB                 | 25 m                    |

LABen ahaleginaren lekuko da hauen islada. Era berean, Gasteiz eta Iruineako Gobernuen isiltasun konplizearekin Madrildik ezartzen diguten "joku demokratikoen" arauen adibide bat gehiago da.

Herrialdeko estruktura territorialen finkatzeak ez du jarraipen berdinek izan eskualde edo, eta bailaratan. Ukaezineko aurrerapenen aurrean, aztertu eta bizkor zuzendu beharreko geldialdiak sortzen dire. Bereziki, bere eskuhartze sindikal eta soziopolitikoari dagokionez, hala nola erakundearen goiko egiturari dagokien lotura eragilean nahiko desberdintasunez dabilta herrietako egiturak homen ondorioz.

Esparru honetan pauso erabakior bat emateko benetako garrantzi eta beharra barneratzen ez zuen utzi, lehen momentuan, Negoziazio Kolektiboaren (IIlen Kongresuko ebazpenak) ikuspegia bere xede eta tajurako oinarri bezala hartuaz, eta hartarako tresna bezala jarriaz, egitura sektorialen dimentsio eta eginkizuneri buruzko zalantzak.

Nazio Eraikuntzaren proiektuaren aldeko ikuspegi zabalago eta orokorragoa bat gure erakundearentzako eta beraietan eskuhartzeko kontuan hartuaz, sektore ekonomiko guztietan gure eskuhartzeari nola ekiten diogun zerrikusi handia du gizarte guztian eta, bereziki, lan munduan ekintza sindikalari ekiteko gaitasuna.

Nahiz eta nahikoa suztatua ez den izan, areen ezperientzia garrantzizkoa izan da. Bakarrik bere erantzunkizun bezala hartuaz, areen ezaugarrien mugatzea eta bultzatzeko militante guztien erantzunkizuna, azken hilabeteak arte, egituretan ez zen zegoela behar bezala barneratua adierazi behar da.

Kongresura arte itxoin ez zezakeen hauteskunde ondorengo fase baterako Sindikatoa prestatuaz organizatibo garapen honen hutsuneeri, lehen hausnarketa batean, joandako udaberrian Konferentzia Nazionalak eman zien aurre. Egiten diren aldaketak, antolakuntza eta eskuhartzean sortzen diren ekimenak IV Kongresu honek mugatu behar duen eztabaida eta ebazpeneteko prestakuntza arras positiboa izan da.

Era berean, prozesu desberdin honetan, antolamendu egituraren ugaltzearen eta egin behar zuten egituren garapen desegokiaren kontraesana azpimarratu behar da. Sujetu eta antolamendu marko iraunkor eta dinamikoaren sortzea handikeria organizatibo batek ezereztea nahi ez badugu, etengabe aztertu eta zuzenduak izan behar dute antolamenduaren dinamikaz erabat mugatuko jarduerak eta ordezkaritza joerak. LAB bezalako erakunde batentzako hor datza kakoa.

Hausnarketa hau ez doa aparatoa murriztea, baizik eta bera eta bere betebeharrak zuzen mugatzera eta noski, eginkizun eta erantzunkizunen azterketa politika egoki bat. Helburu zehatzetan oinarrituaz, xehetasunezko inbertsio politika bat aholkatzen duen neurrian dagoela LABen aparailu organizatiboa, kopuru mailan, kontutan hartu behar da.

Honela beraz, ordezkaritza, afiliazio eta gizarte eraginaren mailan LABen edapenaren testuinguruaren barruan garapen organizatiboa ez da nahikoa eta berdina izan. Sindikal eta soziopolitiko ekintza erasokor eta eragilea-go batean LABen giza indarra eragiteko Konferentzia Nazionalaren neurriak sakontzea beharrezkoa da.

### 2.2.1.- LABen ordezkaritza bilakaera

Herrialde guztietan berdin handituaz eta Baskongadetan %50 gaintuaz Sindikatoaren ordezkaritza zabaltzearen III Kongresuan egiten zen plangintzaren helburua orokorrean bete da. 95ko Abenduaren 15an, emaitzak Hego Euskal Herrian %15 eta Baskongadetan %15,42 ematen zuten.

Gainontzeko sindikatoekin, Hauteskunde Sindikaletako Hitzarmenean LABen partehartze eta sinatzea eta erakundeak egindako ahalegina (azpiegiturak, liberatuak...) hauteskunde prozesu horretan kontrola eta beharrezko tresnaz baliatzeko laguntza garrantzizkoak izan dire.

Nahiz eta datoak sarritan azaldu diren, Gestio Txosten honetan sartzea beharrezkoa ikusten dugu bere azterketarako.

| ARABA          | 90         |              | 95         |               |               |              |
|----------------|------------|--------------|------------|---------------|---------------|--------------|
|                | - 50 t     | 84           | 7,04%      | 93            | 9,59%         | + 2,6%       |
| + 50 t         | 206        | 11,90%       | 212        | 13,19%        | + 1,3%        | + 11%        |
| <b>Guztira</b> | <b>290</b> | <b>9,91%</b> | <b>307</b> | <b>11,84%</b> | <b>+ 1,9%</b> | <b>+ 19%</b> |

| BIZKAIJA       | 90         |               | 95         |               |               |              |
|----------------|------------|---------------|------------|---------------|---------------|--------------|
|                | - 50 t     | 291           | 7,38%      | 371           | 10,72%        | + 3,3%       |
| + 50 t         | 652        | 12,78%        | 543        | 12,47%        | - 0,3%        | - 2%         |
| <b>Guztira</b> | <b>943</b> | <b>10,43%</b> | <b>914</b> | <b>11,69%</b> | <b>+ 1,3%</b> | <b>+ 12%</b> |

| GIPUZK.        | 90          |               | 95          |               |               |              |
|----------------|-------------|---------------|-------------|---------------|---------------|--------------|
|                | - 50 t      | 446           | 15,52%      | 558           | 20,91%        | + 5,4%       |
| + 50 t         | 697         | 21,68%        | 665         | 23,74%        | + 2,1%        | + 10%        |
| <b>Guztira</b> | <b>1143</b> | <b>18,77%</b> | <b>1223</b> | <b>22,36%</b> | <b>+ 3,6%</b> | <b>+ 19%</b> |

| NAFARR.        | 90         |               | 95         |               |              |            |
|----------------|------------|---------------|------------|---------------|--------------|------------|
|                | -50t       | 198           | 9,82%      | 208           | 9,89%        | +0,1%      |
| +50t           | 260        | 11,45%        | 317        | 12,77%        | +1,3%        | +12%       |
| <b>Guztira</b> | <b>458</b> | <b>10,66%</b> | <b>525</b> | <b>11,44%</b> | <b>+0,8%</b> | <b>+7%</b> |

| EUSKADI        | 90          |               | 95          |               |              |             |
|----------------|-------------|---------------|-------------|---------------|--------------|-------------|
|                | -50t        | 1019          | 10,16%      | 1230          | 13,37%       | +3,2%       |
| +50t           | 1815        | 14,74%        | 1737        | 15,44%        | +0,7%        | +5%         |
| <b>Guztira</b> | <b>2834</b> | <b>12,68%</b> | <b>2967</b> | <b>14,52%</b> | <b>+1,8%</b> | <b>+15%</b> |

| BASKON.        | 90          |               | 95          |               |              |             |
|----------------|-------------|---------------|-------------|---------------|--------------|-------------|
|                | -50t        | 821           | 10,25%      | 1022          | 14,40%       | +4,2%       |
| +50t           | 1555        | 15,47%        | 1420        | 16,20%        | +0,7%        | +5%         |
| <b>Guztira</b> | <b>2376</b> | <b>13,16%</b> | <b>2442</b> | <b>15,40%</b> | <b>+2,2%</b> | <b>+17%</b> |

Ordezkaritza sindikalaren koadro haueri, zenbat enpresetan aurkeztu garan datuak erantsi behar dizkiegu eta, baita atera diren boto guztiak. Bi parametroak emaitzen ikuspegi garbiago bat ematen digute, eta bereziki, LA-Bek aurrera egiteko dauzkan ahalmenak.

|                | Total Cand. | Candidat. LAB |            | Cand. con rep. |           | sin rep.   |
|----------------|-------------|---------------|------------|----------------|-----------|------------|
| ARABA          | 987         | 216           | 22%        | 168            | 78%       | 48         |
| BIZKAIA        | 3339        | 746           | 22%        | 566            | 76%       | 180        |
| GIPUZKOA       | 2502        | 889           | 36%        | 695            | 78%       | 194        |
| NAFARROA       | 2128        | 356           | 17%        | 276            | 78%       | 80         |
| <b>EUSKADI</b> | <b>8956</b> | <b>2207</b>   | <b>25%</b> | <b>1704</b>    | <b>77</b> | <b>503</b> |

|          |        |        |
|----------|--------|--------|
| BIZKAIA  | 18.062 | Botoak |
| GIPUZKOA | 16.924 | "      |
| ARABA    | 5.203  | "      |
| NAFARROA | 9.939  | "      |
| GUZTIRA  | 49.639 | "      |

Koadro hauetan, lahendabizi, ordezkariarik lortu ez dugun 500 lantoki baino gehiagoetako afiliatu edo sinpatizanteekin harreman iraunkor bat lortzearen beharra ikusten dugu. Era berean, nahiz 2207 lantokietan kandidaturak aurkeztu, LABen presentzia edo/eta ordezkariitza zabaltzeko langune zabal bat gelditzen dela ikusten da. Azken hauteskunde sindikal hauetan hauteskunde prozesu iraunkortasuna kontuan hartuaz, bi datu hauek, Sindikatoaren ordezkariitza basea zabaltzeko lurralde eta sektorial egitura bakoitzean lan esparru desberdinek egin behar duen plangintza adierazten du.

Bigarren, gure proiektu sindikala legitimatuaz eta aurreratzen eta gure gizarte eragina zabaltzen jarraitzeko pauso garrantzizko bat emanez, hauteskunde sindikal hauetan gure kandidatutereei ia 50.000 langileek eman dietela laguntza zuzena azpimarratu behar da.

Balantze gisa, atera diren emaitzetatik, beharrezkoa da hiru hausnarketa edo egitea:

a) Sektore guztietako ordezkariitza aurrerakadak (Industria, Serbitzuak...) LAB produkzio sare guztian finkatzea ematen du. Nahiz eta aurrera egin egoki sartu gabe jarraitze dugun, Eraikuntza salbu, gaur egun LAB finkatua dago eta produkzio sektore guztietan bilakaera garbian.

b) Osoan, LAB izan da 91 urtean baino delegatu gehiago atera dituen erakunde sindikal bakarra. 1707 lantokietako LAB ordezkariitza duten ia 2967 delegatuak datozten urteetan sindikal eta soziopolitikoki eragin behar dugun kapital bat da.

c) Sakondu beharreko gora beherak izan arren, hegoaldeko lurralde guztietako ordezkariitza zaren igoerak, gorantza joera orokor eta homogeen bat adierazten dute. Bizkaian Enpresa Komite eta Nafarroan enpresa ordezkariaren emaitzak dire beharrezko zuzenketarako kontuan hartu eta aztertu behar diren hutsune bakarrak.

d) Ordezkariitza %14ren batz besteko igoera ezregularra da enpresa motaren arabera. Enpresa txikietan igoera zeharo handia (%31) bada, erdiko eta handietan murriztagoa (%5) da, nahiz eta kualitatiboki garrantzizkoagoa.

Dena den, hauteskunde emaitzen atsegin orokorrak, lortutako ordezkariitza ezin dezake berez helburutzat hartu. Langileriaren sakabanaketaren testuinguruan, lan merkatutik kanpo egunetik egunera langile gehiagokin, tresna garrantzizkoa izan arren, ordezkariitza sindikalak, berez, ez digu ematen sindikal eta soziopolitiko eraginera indarra eta ahalmena.

Hori bai, ordezkariitza igoera hau, langileen interes eta erreibindizioen defentsarako gure gizartean zabaltzeko eragin batekin LAB gizarteko agente bat bezala finkatzeko pauso bat gehiago da.

### 2.2.2.- Afiliazioa

Afiliazioaren bilakaera LABek era kezkarriaren baztertzen jarraitzen duen parametro bat izan da.

Sindikatoaren eragina zabaltzeko, ordezkariitza aurreratzeko ahalegin garrantzizkoak egin ditugu, baina gehienez, LABen dinamika eta barne-kanpoko bizitzarekin lotura iraunkorreko gizarte sare bati eusteko afiliazioak duen balorea gutxietsi egin dugu.

Sarritan afiliazioa, eranskin bezala eta sindikatoaren garapenerako kuota laguntza soil bat bezala lotua ulertua izan da. Konzeptu murrizte hau ORAINDIK EZ DA GAINDITUA IZAN, proiektu sindikal honek iada sortutako baldintzetara oinarritutako afiliazioa eragiteko zailtasunak egiaztatuz.

Nahiz eta Kongresuarterteko datuak, 1995ko Abenduaren 31an, %13,7ko afiliazioaren igoerarekin 23.877ko kopurua, "positibotzak" hartu daitezkeen, baita ere egia da LABek badauzkala, 30.000 afiliatuera erraztasunez

eta epe motzean iristeko iada sortutako gaitasunak.'

Azken hauteskunde sindikaletan LABek lortutako 49.639 botoak erakundearen hedapenerako espazio erreala baten existentzia behar bezala landua izan behar duela egiaztatzen du. Bilakaeraren imajina faltsu bat sortzeko zenbait zentral sindikalen afiliazio datuak "puztuak" dauden arren, ikusgarriena LABen ematen dena dela boto eta afiliatuen desoreka.

Herri mailan kokatzen den sindikatoaren hedapenaren erantzunkizun, egitura sektorial eta afiliazioaren erantzunkizun nazionalaren ekimen ersokor baten bidez, Kongresu honek etapa berri bat ireki behar du. Gaurko gelditasun hau hautsi eta tresna zehatz eta gure afiliazioa hedatzeko beharra benetan teinkatuko duen azterketak ezarri behar ditugu.

### **2.3.-Egituren eginkizunak**

Gestio txosten honeri LABen egitura guztien betebeharren azterketa zehatz bat egitea ez dagokio, baina bai, batez ere, Kongresu ondoren faserako, hausnarrean jarri araziko gaitun zenbait gauza azaldu.

Sentidu honetan, bereziki aztertzeko hiru faktore daudela usste dugu: Idazkaritza Nazionalaren ekimena eta Sindikatoaren egiturekin egituratzea, erakundearen zenbait aparailuen garapena eta, azkenik lan eta azterketen tresneri buruzko hausnarketa bat.

#### **a) Idazkaritza Nazionala**

Iraunkorraren eta Idazkaritza Nazionalaren jarduerak hausnarketaren ikuspegi desberdin ditu.

Batetik, Zuzendaritzako bi egiturak, erakunde guztiaren ezaugarri sendoan biurtuaz III Kongresuan moldatutako ekintza sindikal eta soziopolitikoaren ildoak gestionatzeko gaitasun politikoa adierazi dute.

Baina bestalde, Iraunkor-Idazkaritza Nazionalaren barne jarduera eta Idazkaritza Nazionala-gainontzeko egiturak ez dira zuzen mugatu eta koipatuak egon.

Zenbait alditan Iraunkor Idazkaritza Nazionalaren betekizunak burutu ditu, bere edukinetan eta, ondorioz, bere eginkizunetan balioa galduaz. 95an Idazkaritza Nazionalak berak egin zuen hausnarketak egoera hau era funtsezko batean bideratu du, Sindikatoaren Zuzendaritzak benetako egitura bezala bere oinarritzko betekizuna eskuratuaz.

Era berean, III Kongresoa ezkerotik egin diren moldaketa ugariak (Kongresuan aukeratutako I.N.ko 7 osatzaile irten dire edo ordezkatuak izan dire zenbait zioegatik) eragina izan dute zuzendaritzaren organoaren bilakaeran.

Herrialdeko egiturekin I.N.en antolaketak igaro ditu etapa desberdinak baita ere, eta Herrialdeko Idazkaritzen finkatzearekin loturik daude noski. Batzuetan, Herrialdeetatik jario aportatzaile sortzen den arren, LABen egituretan azterketa eta erabakien prozesua egoki antolatzen ez duen "beherantzako" bertikalismo batez azpimarratua egon joera.

Beraz, erabateko hitzetan, Sindikatuaren gidaritza politiko eta sindikala egokitasunez bereganatuz, erakunde-ko organigraman bere eraginkortasunaren obetzea lortzeko behar hainbeste egikarituak izan ez diren dinamika jorratu dituen Idazkaritza Nazional baten aurrean gaude.

#### **B) Aparatoak**

Esparru eta aparatu guztien azterketa sakon batetan sartu gabe, Gestio Txosten honek aipatu gabe utzi ez dituzaken zenbaitetan sakondu.

Hezkuntza, ukatu ez daiteken krisi batean murgildurik egon da, Idazkaritza Nazionalako aldaketa eta aparatuen arduraren erakarritako hutsunearen ondorio. Zenbait ekimen baztertuak, ez dute zuzentzen Sindikatuko beste esparruetan ondorio eragile duen hutsune hau. Aholkularitza Juridikoa eta Ekintza Sindikala bereziki, hezkuntza gabezi honek eragiten ditu.

Kontraz, eztabaida eta hausnarketa politiko-ekonomikoko markuak dinamizatzeko Ipar-Hegoa Fundazioa martxan jartzea, aurrerapauso oso garrantzitsua izan da, baita LABeko militantziaren hezkuntzarako tresna bezala. Bilbon, Iruñian, Donostin eta Baionan burututako jardunaldiak (Gune sozioekonomikoa, Europar Eraikuntza, Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eta Lan Banaketa) balantze oso positiboa ezartzen dute, etorkizunarako ustantza interesgarria irekiaz.

Sindikatuko berreuskalduntze prozesuak, tentsionamendu eta emaitza mailetan abiadura ezberdinak ezagutu ditu bere bilakaeran. 92-94ko bitartea, LABeko barne bizitzaren berreuskalduntzarako ekimenak piztu zituen tentsionamendu batek karakterizatu zuen (barnetegiak, euskararen erabilpena bultzatzea...). Aurrerapausu garrantzitsua suposatu duen ekimenak izanda ere (kuadroek euskera jakitea, kanpo zein barne mailan erabiltzea...) ez dute, eraginkortasun eta intzidentzia haundiago izateko beharrezko jarraipena eduki.

Ardura Nazionalan hutsunea, Idazkaritza Nazionalaren berregituraketaren ondorioz, prozesu hontan inflexio puntua bilakatzen da, beharrezkoa izanik fase berri bat planifikatu eta irekitzea bai barne mailako berreuskalduntzea, bai lan munduan euskararen hedapena lortzeko.

Hala eta guztiz ere, azterketa honek EZ du justifikatzen gure hizkuntza nazionalaren ezagutza eta erabilpenarako beharrezkoak diren presio neurrien galeran, Idazkaritza Nazionalak eta orokorrean, erakunde guztiak duen erantzunkizuna.

LABentzat, aurrerapauso ikaragarria izan da Sindikatuko aparatuen ekonomiko-administratiboaren finkapena. 92an, Finantzetako 17 arduradunaren atxiloketan, Guardia Zibilak burututako okupazio eta desmantelamendua (ordenagailu, dokumentazioa...), Sindikatua egoera kaotikoan murgildu zuen, pixkanaka bideratzen joan den egoera, egun, fase hontarako atsegingarria den LABeko administrazioaren gestio eta antolakuntza maila lortu arte. Administrazio bat zein, geroz eta trinko eta konplexuago izanik, Sindikatuaren eta bere helburuen funtzionamendu eta hedapenerako ezinbestekoa den.

Arduradun Nazionalaren aldaketa eta taldearen osakeran ondorioak izan zituen Komunikabideetako aparatuen 93ko Udazkeneko krisiak, afiliazioarekin harremanetarako ardatzezkoa den tresnan izan zituen ondorioak: Iraltzenez.

Iraultzena desagerturik egon da hilabete luzeen zehar, 96ko Urtarrilean, giza eta teknik azpiegituran egokitze prozesu baten ondoren berragertuz, sakontzea espero dugun formatu eta edukin berriein.

Prentsa eta Komunikabideetako aparatuen barne funtzionamenduan (osakera, medioak...) sakondu gabe, bai goraiatu, LABek kanpo mailako proiektzioan edukin eta formetan erakutsi duen gaitasun nagusiagoa. Bai komunikabideeruntz, bai gizarteruntz (Alarma egoera eta beste kanpainak) LABen imagina eta proiektzioak, Komunikabideetako aparatuan bereziko aportazioa izan du.

Sozioekonomia arloko Arduraren hutsuneak, erakunde sindikal batean oinarritzkoa, era esanguratsu batean eragin du sindikatuaren kapital ekoizle eta aztertzailean azken hilabetetan, borondate eta abagunean oinarritutako dinamika garatuz.

### **c) Lan eta azterketa tresnak.**

Sindikatuaren barne funtzionamendua ez da ezinbesteko jardunbide diren plangintza eta azterketan oinarrituta egon. Orokorrean, Sindikatuko ardura guztiak, plan zehatzik gabe jardute, ezinezkoa izanik helburuak finkatu eta militantziaren lanaren emaitzak neurtzea. Plangintza eta azterketa gabezi honen ondorio dira militantziaren borondatea lana eta, bereziki, Sindikatuko aparatuen jardueran erizpideen laburtzea.

Sindikatuako esparru eta ardura guztietan eragina duen hausnarketa izanik ere, mota ezberdinetako eginkizunen metaketa Erakuntzako Arduradun Nazionalarengain, eta era berean, herrialde eta eskualde mailetan, erakuntzakoak diren lanen mugaketa ezak, gai hau, nahi bezalako azkartasun eta eraginkortasunarekin jorratzea galera du.

Nahiz eta egiten diren aldizkako azterketak, eta kontuan izanik, hori bai, Hauteskunde Sindikal eta Sindikatuen erronka orokorrak dituen eraginak (kuadro askoren dinamikak itotzen dituzte), LANAREN PLANGINTZA ETA AZTERKETA, ZINTZILIK JARRAITZEN DUEN GALA da Sindikatuaren funtzionamendua. 18

Egoera honek, 95eko Konferentzia Nazionalak barne mailako lehen astindua egitea erakarri zuen, Kongresuak indartu beharko duen dinamika bati ekinez.

### 3.-Balorapen orokorra

Aurreoko hausnarketak kontutan harturik, Gestio Txosten honek, Idazkaritza Nazionalak aurkeztutako balantzea orokorrean positiboa dela uste du, baina ez bere buruaren lausengarria inolaz ere.

Lau urte hauetan Sindikatuak kopuru sendotze eta gizarte eragin bat burutu. Urteetan Administrazio, Sindikatu eta enpresarioengandik jaso izan ditugun eraso eta lurreratzeegatik arrunt fase zail bat. Bere jarrerak gero eta langile gehiagok aintzakotzat hartuaz, teorikoki eta praktikoki bere proiektu sindikala sakontzen joan da zailtasun hoiengainetik.

Eskuhartze oinarriekin produkzio sektore guztietan eta ekintza sindikal gune puntuetan (Administrazioa, Industria, Garraioak, Komunikabideak...) gizartearen goraka doan proiektu sindikal bat da gaur LAB.

Euskal langile guztientzako egunetik egunera tresna eregileago bat izateko helburuz, proiektu sindikal honetik borondate eta liluratik, txosten honetan aurkezturiko oker edo hutsuneak zuzendu edo autokritiko izateko ez gaitu itsutzen hausnarketa honek.

Eskubide demokratikoak ukatzeak, ekonomia eta enpleguaren menosteak mugatutako gune ekonomiko eta politiko batean, eta era berean, bere joko arau antidemokratikoeri "lotuta eta ondo lotuta" eduki nahi duten gehiengo abertzale sindikalaren kontrako sindikalismo espainolaren eraso estrategiatatik, aurrerakada kuantitatiboa osatzeko eta, bereziki, lehenarekin elkarloturik, LABen eragin sindikal eta soziopolitiko indar handiagoz bultzatzeko aukeran gaude, beraz.

Marko honek ezartzen dizkigun politiko, ekonomiko eta soziolaboral loturen apurtzetik eta Hego Euskal Herriarentzat benetako demokrazia politiko baten lorpena, noski, soziopolitiko eta sindikal ingurua baldintzatzeke eta euskal langileentzako etokizun itxaropentsu bat antolatzeke, ELAekin eginiko batasun sindikalaren positibotasuna baieztatzen dugu.

Sindikalismo eta euskal agente sozialen eskuhartze zuzenerako eta, ondorioz, langileentzako aldeko neurriak zehazteko, tresna bezala, LHEM eta EGSE baten eskakizunak, ABERTZALEEN GEHIENGO SINDIKALAREN ESKUHAZTEAREN ARDATZ NAGUSI bat izanez, indarra eta ezaugarritasuna hartu du.

Soziopolitiko eta sindikal mailan, ELA eta LABek jarri dugun ezaugarritasunak, Euskal Nazio Eraikuntzarako erronka teoriko eta praktikoa bat egiten denean bakarrik gauzatuko dela "abertzale batasuna" adierazten du.

Kongresuarte hau negatiboki ezaugarritzen du lan harremanetan Lan Erreformaren hedadurak. Enplegua sortzetik urrun, prekaritatearen garapen azkarra, BLE..., mogimendu sindikal eta langileriaentzako kolpe gogorra izandu da.

Enpresa eta gizartean sindikalgintzaren ekintza indartuko duen hausnarketa baten beharra merezi duen eraso handi honek ERANTZUNIK ez da izan, nahiz eta LAB eta gainontzeko E.M.S.a Lan Erreformaren aurka egon. Eraso sindikal bat antolatu behar dugu enpleguaren alde, prekaritatearen aurka, fiskal iruzur eta bankuen irabazieri erantzuteko... alegia, enplegu eta ondasunaren banaketarako.

Azken lau urte hauetan, langileria desenplegua, prekaritatea eta desantolamentua nozitzen ari den bitartean, luze eta zabalean, enpresarioak, bankeroak..., bakarrik loditzea ezin dezakegu onartu.

Euskal langileok jasaten dugun bere osotasun guztian inguruaren garrantzia ezin dezake saihestu edo ezkutu balantzate asebateak. Ez dire autoatseginerako garaiak beraz, baizik eta Hego Euskal Herrian benetako politiko eta gizarte aldaketa baterako gizarte indarrak metatzen jarraitzeko garaiak.

Demokrazia ukatzen zaigu eta gure ekonomi eta soziorabial etorkizuna mugatzen zaigu euskal biztanleori.

Herri bezala bere izatea arriskatuaz, gehiengo langileriaren bizi baldintzetan erabat eragiten duen Hego Euskal Herriak politiko, ekonomiko eta gizarte egoera bat jasaten du.

Deszentralizazio administratiboa bihurturiko, "indar politiko" birreskutatzeke ustezko prozesuaren izenean, euskaldunokin, proiektu espainolaren eranskin erregional bat egin nahi duten politiko eta hezkuntza ekimen bat bultzatu dute. Madrilloko Gobernuak euskal biztate eta langileon erreibindikapenak hipotekatuak dauzkan joku arauak (trufaz "demokratikoak" deiturikoak) ezarriaz oinarritzko eskubideak ukatzen dizkigute.

Gaur, PNV, EAren...zatiak, Estatuaren papurren gestio antzueren estrategian jarraitzen duten Gasteiz eta Irui-neako Gobernuak, Estatu Espainoleko Gobernuarentzako, Munduko Bigarren Gerratean alemaniar nazitarrentzako Vichyko Gobernuaren zena dire: bere interes orokor eta estrategikoen gestore on bat.

Ahaleginak bikoiztera eta politiko, ekonomiko eta gizarte textuinguru hau gainditzeko gizarte eragina mugieraztera behartzen gaitu momentuaren larri eta gure herriko milaka sendietako pairamen ondorioak.

Bilakaera handiagoetarako oinarriak ezarriaz, Euskal Langile Mugimentuan, euskal langile eta Nazio Eraikuntzaren bidean eta gizarte aldaketan Ezker Abertzalearen proiektu orokorrerako eragin garrantzizko bihurtzen gaitu gure aurrerakadak.

Beraz, aurreratu dugu eta lanean jarraitzeko eta Euskal Herriko eta bere langileriaren alde borrokatzeke egoera hobean gaude. Baita ere, balore demokratiko eta gizarte justizia benetan garatuak dauden EUSKADI INDEPENDIENTE ETA SOZIALISTA baterantzeko bidean jarraitzeko.

**IDAZKARITZA NAZIONALA**

**Gestio  
txostena**